

# IRUÑEKO ESKOLA BARATZE EKOLOGIKOEN II. TOPAKETA

## “IREKI DITZAGUN ESKOLAKO ATEAK BARATZEENTZAT”



Hiru ikasturte joan dira dagoeneko Iruñeko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldearekin eskola-baratze ezberdinak ezagutzera eramán gaituen bideari ekin genionetik. Bidean malda gogorak, jaitsiera zorabiagarriak, lautada atseginak... aurkitu ditugu, baina batez ere, zuekin topo egin dugu: irakasle, ikasle, atezain, zuzendari, familiekin... Ilusioz beteriko pertsonak zarete, eta eskola-baratzeak loratzen laguntzen ari zarete, eskolako atek naturari irekitzen, eta ondorioz, ingurumen-hezkuntzak eskoletako hesiak gaindi ditzan ahalbidetzen, ingurumen-hezkuntzarako oinarrizkoa den naturarekiko harremana errazten.

Irudi batek mila hitzek baino gehiago adierazten duenez, film labur hau ikustera gonbidatzen zaituztegu, haurtzarotik naturarekin harremanetan egoteak sortzen dizkigun emozioen erakusgarri baita: “[Ma forêt](#)” (2014. urteko Ekozine Nazioarteko Jaialdian animazioko film labur onenaren saria).

Eta sentiberatasunetik gauza kognitiboagoetara jauzi egin nahi dutenentzat, Pedagogia Berdean nazioarteko erreferente den Heike Freireren [artikulu hau](#) aurkezten dizuegu, zeinean ingurumen-hezkuntzaren funtsak gogorarazten baitizkigu.

Baratzeei eskoletako atek ireki zenizkietenetik hainbat esperientzia erein dituzue, eta joan den urtean esperientzia horiek partekatzen hasi ginen Iruñeko Baratze Ekologikoen I. Topaketan. Esperientziak haziak bezalakoxeak dira, bizitzaren iturri, aberasgarri eta elikagarri. Horregatik hasi ginen esperientziak elkarrekin partekatzen, eta aurten ere horretan jarraitu nahi dugu, zertan ari garen, zer zailtasun eta erronka ditugun, zer lortu dugun... ikusaraziko diguten hitzen, ahotsen eta irudien bidez.

Aurten 7 ikastetxek parte hartu duzue programan eta hauek dira ekoitzi dituzuen fruituak. [Lotura](#) honetan aurkituko dituzue bakoitzaren haziak, eta beste guztientzat inspirazio-iturri izan daitezen espero dugu:

- Amaiur Ikastola
- CEIP Doña Mayor
- CEIP García Galdeano
- CEIP Mendillorri
- CEIP Rochapea
- Mendigoiti IP
- Sanduzelai IP





Haziak modu ezberdinetan barreiatzen dira, eta hala, batzuk, inguru hurbilenean gelditzen dira, baina beste batzuek distantzia handiak egin ditzakete. Horietako batzuk gugana hurbildu dira gure eskola-baratzeak elikatu eta dibertsifikatzera. Zein diren ezagutzea lagungarri izan daiteke zuen eskoletako baratzeak aberasteko. Hauek aurkituko dituzue hemen:

- **Eskola-baratzeetako Estatuko I. Topaketaren Memoria laburtua (2018ko urria)**. Guztia irakurtzeko astirik ez duzenontzat, esanguratsuena iruditu zaiguna bildu dugu:
  - Eskola-baratzeen balio pedagogikoei buruzko Bideoa, (Colectivo Helianto)
  - Cartolome Nicolau CEIP ikastetxearen proiektuan sakontzen
  - Asociación Vida Sana eta Fundación Triodosen "Premio Huertos Educativos Ecológicos" saria irabazi duten ikastetxeen Memoriak
  - "Plantando números" Bideoa (IES Salvador Sandoval)
- **Madrilgo Udaleko Eskola Baratzeen Sarearen Esperientzia arrakastatsuen azterketa**. Harira zuzenean joan nahi duenarentzat:
  - 30-32. or.: Hobetzeko proposamenak Ikastetxeentzat.
  - 33. or.: Ondorioak.

Esteka honetan San Cugat del Vallés-eko (BCN) hainbat argibide aurkituko dituzue (esperientziak, proposamenak, etab.) eta hemen Andaluziako Mendebaldeko Baratze ekologikoetako haziak.

Oraindik bide luzea dugu egiteko, eta aurten Topaketa egiterik izan ez badugu ere, balioa eman nahi diogu eskoletan agroekologiari atea zabaltzeak duen garrantziari. Trantsizio ekologikoaren bideak ezarritako ibilbidean, hiriek lekua egin behar diote agroekologiari; zuek hasi zarete dagoeneko. Fabian Ribezoren "The change" film laburrak (2012ko Ekozine jaialdiko ikusle Gazteen sariduna) arrasto batzuk ematen dizkigu.

Mila esker eta laster arte!

Ingurumen Hezkuntzako Lantaldea: Iosu Alfaro, Ana Dominguez, Gurutze Santxo eta María Soto

